

Pasai Antxoko Txosna Batzordea

Herriko jaiak. Egun batzuetan zehar herritarren gogoak, ilusioak, harremanek eta denborak toki bera hartzen dute; herriko plaza. Honetaz gain, antolakuntzan oinarritutako mugimendu herrikoi, alai, indartsu eta itxaropentsu moduan ulertzen ditugu. Hori bultzatu zein bizitzearen aldeko apustua egingo dugu.

Pasai Antxori jaietan ekarpena egiteko gogoak eta energia piztu zaigu. Kaletar gisa, kalea hartu eta betetzeko asmoa daukagu San Fermin hauetan. Balore euskaldun, parekide eta parte hartzaileetan oinarritutako gunea sortu nahi baitugu Zumardian.

Musika eta egitarau xume batekin eman nahi diogu hasiera aurten egitasmoari. Bai eta, arnas gunea izan daitekeen gune bat eskaintzearekin. Horrela bada, Txosna bat jartzearen ideia bultzatzen ari gara, eragile zein norbanako desberdinen artean sortutako Txosna Batzordeak bultzatuta. Besteak beste, Basari Elkarteak, AEK eta Harremantxok hartzen duten parte bertan.

Txosna bakar bat izatetik haratago, gune bat izan nahi dugu eta bide horretan, TOPAgunea izena jarri diogu guneari. Herritar ezberdinen topaleku izatea nahi dugulako eta elkarrekin topa egingo dugulako.

Aurten, denbora dela eta, egitaraua xumea izango da. Baina proiektua urtetik urtera indartzea da helburua. Horregatik txosnatik ateratako dirua hurrengo urtetan proiektua handitzen joan dadin erabiliko dugu. Helburua ez delako inondik inora dirua biltzea, herriari somatutako hutsune hori eskaintzea baizik.

San Ferminetan TOPAgunean TOPAtuko gara!!!

Pasai Antxoko Txosna Batzordea